

# 8. Unitatea: Afrika Euskadin / Euskadi Afrikan

Unitate honetan, ikusiko dugu euskal presentzia Afrikan, XIX. mendean, Europako herrialdeek, horien artean Espainia zela, gauzatutako kolonizazio-prozesuen esparruan garatu zela.

Ikusiko dugu are gaur egun ere, nahiz eta Euskadi gizarte askotarikoa eta plurala izan, afrikar jatorriko pertsonak zailtasun eta oztopo erantsiak dituztela bizitzako hainbat esparrutan, eta horrek hainbat diskriminazio-maila eragiten dituela.

Euskadin bizi diren afro-ondorengo ugari beren presentzia normalizatzeko eta espazioak okupatzeko borrokan ari dira, eta, hainbat estereotipo eta aurreiritzi direla-eta, espazio horietarako sarrera zaildu zaie.

Pertsona afro-euskal herritar horietako batzuek adierazgarritasuna lortu dute beren lanetan eta bizitza pertsonalean, eta gaur egun gizarte-erreferente garrantzitsuak dira.

**Unitate honetan aurkituko ditugun jarduerak:**  
Sustraira, zabaldu begirada eta jolastu/txirikordatu.





## **Euskadi Afrikan**

### **Euskadi ez zen esklabo bihurtutako pertsonen trafikotik aparte geratu**

Euskal gizarteak esklabo bihurtutako pertsonen merkataritza izandako inplikazioa enigma eztabaidagarri eta nahasia da Euskadiren Historiaren osotasunaren barruan.

Duela gutxi egindako ikerketa batzuen arabera, ondorioztatzen da, euskal agintariek euskal lurraldean esklabotza debekatu arren, **debeku hori euskal nortasuna osorik gordetzeko interesean oinarritzen zela, eta ez esklabotza eta esklabo bihurtutako pertsonen salerosketa bidegabeko eta legez kanpoko jardueratzat jotzean**; izan ere, euskal erakundeak ez ziren Euskaditik kanpoko beste leku batzuetan esklabo bihurtutako pertsonen jabetzaren, ustiapenaren eta salerosketaren aurka jartzen; aitzitik, onuragarritzat hartzen zituzten praktika horiek.

Euskal agintarien debekuak gorabehera, euskal bizitza sozialean presente egon zen esklabotza. Hala, esklabo bihurtutako pertsonak izatea ohikoa izan zen merkatarien artean. Era berean, esklabotza ohiko praktika zen beste leku batzuetara bidaiatu eta leku horietan bizi izan ziren hainbat euskal merkataritza saiatu ziren frogatzen esklabo bihurtutako pertsonen jabe izatea ez zela arriskutsua ez elkarbizitzarako, ez euskal identitatea kontserbatzeko. Horrela, XVI. mendearen hasieratik, euskal jatorriko zenbait herritarrek afrikar esklaboen Amerikarako merkataritza bultzatu zuten, eta pertsonen salerosketaren negozioarekin irabazi handiak izan zituzten.

**Azken ikerketa horien arabera, esklabotza presente egon zen euskal Historian, nahiz eta litekeena den esklabo kopurua beste eskualde batzuetan bezain ugaria ez izatea.**

# Afrika Bibang

(Algorta, 1975) gineatar jatorriko abeslari espainiarra da, euskaraz abesten duen lehen artista beltza izan zen. Txikitatik bere familiako musika beltzaren eragina izan du: Afrikako musika, soula, reggaea eta jazza besteak beste. Bere konposizioetan euskaraz zein gaztelaniaz eta ingelesez abesten du, eta kontuan izaten ditu eduki sozial eta kulturalak.

## ► Quinndy Akeju Euskal Herriko mapa



## **Euskal presentzia Afrikako prozesu kolonizatzaileetan**

Euskal presentzia Afrikan, XIX. mendean, Europako herrialdeek, Espainia horien artean zela, gauzatu zituzten kolonizazio-prozesuen esparruan (esplorazioak, zientzia-lanak, misio erlijiosoak eta ekimen ekonomiko-komertzialak) garatu zen.

Esploratzaile horiek, motibazio zientifikoek, erlijiosoek, komertzialek edo patriotikoek bultzatuta, kontinente afrikarra kolonizatzeko beharrezko aurrekaria izan ziren. Pertsona horiek gabe, nekez instalatuko ziren Europako estatuak hain erraz Afrikan; izan ere, haiek zeharkatu zituzten oihanak, sabanak, basamortuak, ibaiak nabigatu eta mendiak igo zituzten, eta, ondoren, herrialde kolonizatzaileek egindako inbasioetarako beharrezko mapak egin zituzten.

Ekimen aipagarrienak Manuel Iradier, José María de Murga, Antoine d'Abbadie edo José Lerchundi euskal jatorriko pertsonak bultzatutakoak izan ziren.

Euskal esploratzaile garrantzitsuenetako bat **Manuel Iradier** izan zen. 1874an, lehen espedizioari ekin zion Gineako golkotik, eta handik abiatu zen barrualdera. Espedizioak iraun zuen bi urte eta erdian, ia 1.900 km egin zituzten Iradierrek, haren emazte **Isabel Urquiolak** eta emaztearen ahizpak. Bisitatu zituzten herrietako hizkuntzen ezagupenak eta erregistroak ekarri zituzten, baita astronomiari, etnografiari, nekazaritzari eta klimatologiari buruzko ohar ugari ere. Bigarren espedizioa askoz ere asmo handiagokoa izan zen, eta izaeraz kolonizatzaileagoa, lurralde guztiak Espainiarentzat konkistatzeko asmo sendoa baitzuen, kostatik Gineako golkoaren barrurantz, ordura arte Europako beste herrialde batzuek okupatu ez zituztenak. Manuel Iradierrek anexio itunak egin zituen lurralde horietan bizi ziren herriekin, eta Afrikako eskualde horretako 14.000 km<sup>2</sup> inguru espainiar lurralde zirela aldarrikatu zuen.

Euskal jatorriko beste esploratzaile ezagun bat **Antoine d'Abbadie** izan zen. Aita euskalduna zuen, eta ama irlandarra, eta XIX. mendearen erdialdean Abisinia, egungo Etiopia, zeharkatu zuen. Bertan, 250.000 km<sup>2</sup>-ko lurraldea kartografiatu zuen han igaro zituen 11 urteetan. Anaia-rekin batera, 30 tokiko hizkuntzatatik ikasitako 40.000 hitz bildu zituen, amharera hizkuntzako hiztegi bat osatu zuen (Etiopiako hizkuntza nagusietako bat da), eta zehaztasun handiko mapak ere egin zituen.

## **Euskal gizartearen rola Ekuatore Ginearen kolonizazioan**

Azkenik, esan behar dugu euskal herritarrek zeregin nabarmena izan zutela **diktadura frankistan Ekuatore Gineako kolonizazio espainiarrean; batez ere kolonizatzaile gisa jardun zuten, eta produktu berriak ustiatu zituzten, hala nola kakaoa, kafea eta zura**, Espainiak Ekuatore Ginean sustatutako hiru ekoizpen handiak.

1880ko hamarkadatik aurrera hasi ziren Espainiako kolonoak kakaoa ustiatzen. Tokiko eskulana lortzeko arazoak zeudenez, kolonizatzaileek Liberiako, Nigeriako eta Ekuatore Gineako zati kontinentaleko milaka langile ekarri zituzten, garaien arabera, “bracero” zeritzenen benetako ehiza eta salerosketa eginez. Espainian eta Europako beste herrialde batzuetan kontsumitzen zen txokolatea Ekuatore Gineako kakao-sailetatik zetorren, eta, han, “braceroak” erdi-esklabo gisa aritzen ziren.


Ekuatore Gineako gaur egungo lurraldeak, kolonia gisa, erregimen frankistaren mende egon ziren urteetan, kakaoaren ekoizpena ia hiru aldiz handitu zen, ordura arte ekoizten zenarekin alderatuta. Kakaoaren laborantzatik eta ustiapenetik abiatuta, garai hartako marka espainiarrak esponentzialki hazi ziren: Cola-Cao, Elgorriaga, Cacaolat.



**Kakaoa ustiatzeko dinamikak aldaketa sakon eta zorrotzak ekarri zituen herri autoktonoen gizarte-harremanetan, produkzio-moduan, baliabideen jabetzan eta ekoizpena merkaturatzeko kanaletan.**

*Ekuatore Ginean, kolonoek ez zituzten errespetatu bertako nekazaritza-ezagutzak, eta Bioko uhartea, emankortasun handikoa, Espainian eskaera handia zuten produktuen fabrika bihurtu zuten.*

▼ **Kakaoa: luzerako sekzio-ikuspegia, sekzio gurutzatua eta kakao-alea**





## ▲ Bizkaiko Jaurerriaren eskumena Naiara Obiang Olaso

### Afrika Euskadin

Migrazio-prozesuen ondorioz, oso agerikoa da euskal gizartea osatzen duen komunitatea plurietnikoa eta askotarikoa dela. Aniztasun horren barruan, afrikar jatorriko pertsonen presentzia ikusten da gure eguneroko bizitzan. **Kontua da: non daude? nor dira? zer egiten dute?**

### Pertsona afro-ondorengoan eta afrikar jatorriko pertsona migranteen historia

Ezin dugu zehaztasunez esan noiz iritsi ziren Afrikako lehen migratzaileak euskal lurraldera. Hala ere, ondoriozta dezakegu, euskal merkatariek Afrikatik Amerikara XVI. eta XVIII. mendeen artean egindako merkataritzan parte hartu zuten, horietako askok beren bizitza




berrabiarazi behar izan zutela eskualdean. Azpimarratzekoa da, garai hartan indarrean zegoen legediaren ondorioz, ez zirela asko izan “geratu” ziren afrikar familiak. Bizkaiko Jaurerriko Foruaren Lehen Tituluko XIII. Legeak, adibidez, bizkaitarren «leinu noblea eta odol garbia» aipatzen zuen, eta debekatu egiten zuen «judu eta mairuen leinuak» biztanle bihurtzea, eta horrek zaildu egiten zuen herrialdean pertsona migratzaile ez-zuriak presente izatea.

Hala ere guztiz ere, esklabotza 1817an abolitu eta gero, eta ondoren izan ziren industria-iraultzekin eta garraioen aurrerapenekin, migrazio-fluxua handitu egin zen, eta, horrekin batera, baita afrikarren presentzia ere lurraldean. Galdera hau dago azpian: beti egon dira afrikarrak Euskadin? **Erantzuna ezezkoa da, baina 200 urte baino gehiago daromate autonomia erkidegoan bizitzen. Horren ondorioz, afrikar jatorriko familiak eta belaunaldiak daude gizarte honetan.**

## **Non daude?**

Euskal gizartea kultura-aniztasunean aberatsa den arren, **afrikar jatorriko pertsonen zailtasunak eta oztopoak dituzte bizitzako hainbat esparrutan, eta horrek hainbat diskriminazio-maila eragiten ditu;** horrek biztanleria hori komunitatean ikusezin bihurtzea eta baztertzea eragin du. Horregatik, zailagoa da horiek lanpostu adierazgarrietan edo erakunde publikoetan ordezkari izatea lanetan ikustea, adibidez.

**Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) argitaratutako 2020ko datuen arabera, diskriminazioa gero eta jende gehiagok bizi duen errealitatea da Euskadin.**



**“Ez naiz esklaboen ondorengoa, gizaki esklabotuen ondorengoa baizik”**

**Makota Valdina**

▼ **Sitapha Alfred Savané  
Iñaki Williams Arthuer  
Nicholas Williams Arthuer**

**Afrikako jatorria duten pertsonak bizitzako hainbat esparrutan zailtasunak eta oztopoak gehituak dituzte, diskriminazio maila desberdinak eragiten dituztenak.**

## **Afrikar jatorriko pertsonen ordezkari- ikusezintasuna Euskadin**

Ibilbide luzea du pertsona afro-ondorengoen ordezkari faltak administrazio publikoaren estatuko, eskualdeko eta udaleko mailetan. Ordezkariarik ezak eta komunikabideetan eta kultura-ekoizpenean erreferentzia edo eredu positiborik ez izateak ikusezintasun handiagoa eragiten dute. **Hezkuntzaren esparruan, emakumezko afrikarrei eta afro-ondorengoei balioa emango dieten erreferenteen falta nabarmena dago.**

Alabaina, pertsona horiek gure egunerokoan daude: gure ikaskideak dira, bizilagunak, gure adinekoak zaintzen dituztenak, pisu handia dute gure gizartean eta gure ekonomian. Gure ingurura begiratu gero, seguruenik haietako asko aurkituko ditugu, gaur egun gizarte anitz eta askotarikoa osatzen dugunon pare baitira. **Zailtasunak zailtasun, hainbat arlotako pertsona erreferente eta aktiborekin egin dezakegu topo.**

Askoz gehiago daude, baina zuen inguruko afro-ondorengoei edo afrikar jatorriko pertsonari zer espaziotan bizi diren edo zertan diharduten galdetzeraz gonbidatzen zaituztegu. Ohartuko zarete haien presentzia normalizatzearen eta espazioak okupatzearen alde egiten dutela, hainbat estereotipo eta aurreiritziren ondorioz sarbidea zaildu baitzaie.

## **Identitatea: “zer dira? nola sentitzen dira? nola identifikatzen dira edo nola deskribatzen dute beren burua?”**

Identitate indibiduala bi prozesu paralelotan oinarritzen da: “nola identifikatzen zara” eta “nola identifikatzen zaituzte besteek”. Lehena aldatu egiten da pertsona batetik bestera, eta bigarrena, berriz, besteek zer garen erakusten diguten modutik eraikitzen da. Ikuspegi horretan, pertsona beltzak ezaugarri adierazgarrientzat belztasuna dutela sentitzen dira “irakurrita” etengabe, “beste pertsonak” gisa, eta, aldi berean, arrazismoak nozitzen dituzte beren egunerokotasunean.

Bai adin goiztiarretan, bai nerabezaroan eta gaztaroan, afrikar jatorria duten Euskadiko pertsonak, askotan, komentario desegokiak, mesfidantza, arbuioa edo begirada lotsagabeak jasotzen dituzte. **Euskal iruditeria kolektiboan oraindik ez da onartzen Euskadin jaioak diren edo bizitza osoa Euskadin eman duten eta, horrenbestez, beste edozein pertsonaren bizi-ibilbide berberetan parte hartu duten pertsona beltzak daudela.** Hori guztia dela eta, afro-ondorengo askok ez dute beren burua euskal herritar edo afro-euskal herritar gisa aitortzen, jasandako gaitzespenagatik eta diskriminazioagatik.

Hala ere, Ikuspegik egindako zenbait azterlanetan biztanleria afro-ondorengoari egindako elkarrizketen arabera, gehiago dira afrikar jatorriko gazteak beren belaunaldiarekin lotzen dituzten elementuak beren jatorriagatik eta/edo atzerriko jatorriagatik bereizten dituztenak baino. Arazoak, kezkak, bizipenak, itxaropenak, erronkak, beldurrak, ilusioak eta abar euskal gazteria osoak dituen berberak dira. Horrekin guztiarekin, identitateak pluralak eta askotarikoak direla esan dezakegu: pertsona batzuek, hemen jaio edo bizi izan arren, gehiago besarkatzen dituzte beren jatorriak, eta afrikar sentitzen dira. Beste asko euskal herritar, euskal afro, afro espainiar gisa identifikatzen dira, besteak beste. Guztiak dira baliozkoak eta eztabaidaezinak, norberaren nortasuna eraikitzea pertsonala baita, eta hainbat aldagaik eragiten baitute horretan.

## **La infancia**

Beste euskal gazte-talde batzuekiko elementu bereizgarria haurtzaroa da. **Pertsona afro-ondorengo asko bat datoz bizitzako etapa hori nahas-menduz adieraztean: aitaren jaioterria, amarena, biena edo are norberarena ere, edo amaren aldeko familiaren edo aitaren aldeko familiaren zati batena.** Lagunekiko eta ikaskideekiko zenbait desberdintasun aurkitzeak, hala nola etxeko hizkuntza, ezaugarri fisikoak, janaria, oporrak herrialde desberdinetan, eta abar, aldi hori askoz nahasiago eta antzeko adinetako beste kolektibo batzuetan ohikoa den baino aldaketa gehiagorekin gogoratzea eragiten du, bi kulturaren (edo gehiagoren) artean bizi baitira egunerokotasunean.

**Sentimendu horrekin batera, askotan, lankide gehienekiko desberdinak izateagatik jasandako diskriminazioaren eta gaitzespenaren oroitzapena sortzen da.**

Kultura askoren artean bizitzeak (desberdinak izanda ere) ez luke zailtasuna izan behar gizartean bizitzeko. Hala ere, Mendebaldekoak ez diren kulturek eta jatorri migratzailea duten pertsonak sortzen dituzten estereotipoen eta gaitzespenaren ondorioz, kulturak gatazkan sar daitezke pertsona afro-ondorengo edo afrikar baten baitan.



▲ **Ondorioz, horrek osasun mentaleko, atxikimenduko eta garapeneko arazoak sor ditzake, besteak beste, adin goiztiarretan**





▲ **Victoria Santa Cruz: “Beltza, oihu egin zidaten” poemaren egilea**

Arrazismoaren bizipen diskriminatzaileek ondorioak izan ditzakete haiek pairatzen dituzten **pertsonen esparru afektiboan, heziketazko eta akademikoan zein sozialean.**

Esparru afektiboan, esperientzia horien bizipena emozio negatiboekin lotzen da, autopertzepzioa eta autoestimua murrizten baitituzte, eta horrek segurtasunik eza eta egonezin traumatikoa ere eragin dezake. Gainera, hezkuntza-esparru materialaren barruan, arrazismoaren biktimek ere errendimendu akademiko eskasa eta iraganeko bizipen mingariek eragindako eskola-porrota izan ditzakete. Esparru sozialean, eragina izan dezake portaeretan eta elkarreragin sozialean, gaitasun sozialei eragiten baitie.

Horregatik, oso garrantzitsua da **ezagutzen ez ditugun kulturak errespetatzea**, nahiz eta gureekin alderatuta guztiz bestelakoak izan, **ohiturak ez auzitan jartzea eta ez epaitzea** gure mendebaldeko ikuspegitik, eta, batez ere, **kultura guztiei lekua eta aukera ematea**, guztien eskubi-deak errespetatuko dituen bizikidetzak askotariko eta pluralaren alde.

## **Bestetasun sentimendua**

“Beltz” denaren aurkako gaitzespenak ikustean, afrikar jatorriko pertsonak beren ilea, larruazala, hazpegiak eta kultura mespretxatzen has daitezke. Horren ondorioz, inkontzienteki edo kontzienteki, gorputz onartuago batean bizitzea erabakitzen dute, sozialki hain gogaikarria ez den gorputz batean. Horregatik, emakume batzuek ilea lisatu edo larruazala zuritu egiten dute, beren gustuak eta/edo adierazteko modua aldatzen dituzte, gizartean egokitzeko eta arbuioa saihesteko asmoz.

Hala ere, helduarora iristean, pertsonak kontzientziatzera eramaten dituzten egoeren ondorioz kasu askotan, pertsona afro-ondorengoek hobeto ulertzen dituzte beren sustraiak eta borrokak, beltz gisa auto-definitzen dute beren burua, eta identitate bat eraikitzen dute, zeinean beren burua onartzen duten, oraingo honetan ez kanpoko ikuspegi batetik, baizik eta beren buruari belztasuna eta antzinakotasun bote-retsua aitortuz. Horrela, ikasteko bide bat hasten da, sinesmen mugatzai-leak kenduz eta bereziki emakumeen aurka jotzen duten estereotipoak alde batera utziz. Ederrak direla ohartzea eta beren buruak diren bezala maitatzea aldarrikapen eta askatasun ekintza da.

“*Me gritaron Negra*” **gogoetari tarte handia uzten dion poema da, “beltz” terminoaren konnotazio negatibotik positibora eramaten duena**, esperientzia eta eraikuntza propioen ondorioz gertatzen den aldaketa, belztasuna harrotasun-motibo bihurtuz, herentzia handi bat, botere handi bat.

## Ba al zenekien?

**p.131: Euskadi ez zen esklabo bihurtutako pertsonen trafikotik aparte geratu:** Javier Ortiz Arza (2019). “La comunidad vasca de Sevilla y la trata de esclavos (s. XVI)” doktore-tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.

- Besteak beste, Tomás Lazcano, Sancho Ortiz de Urrutia, Diego de Zárate, Martín de Zavala, Lope de Idiáquez, Miguel Martínez de Jaúregui, Gregario de Ugarte eta A. Urquizu.

**p.132: Quinndy Akeju,** erizaintzako ikaslea, dantzaria eta koreografoa, afroaktibista eta Komunitate Beltzaren eta Afro-ondorengoaren koordinatzailea (CNAAE \_EUS) Euskadin eta Estatuan.

**p.136: Naiara Obiang Olaso,** Energietan espezializatutako Industria Ingeniaritzako ikaslea. Bizkaia Talent-eko Talentia Skills taldeko kidea. AESA-Neko (Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasle Elkarte Antirrazista) kidea eta diruzaina.

**Pertsona afro-ondorengoan eta afrikar jatorriko pertsona migranteen historia:** Esklabotza ofizialki 1817an abolitu bazen ere, horrek lurralde kolonizatuei edo itsasoz haraindiko ondasunei baino ez zien eragin. Horrenbestez, Penintsulan esklabo ziren pertsonak “edukitzea” baimenduta zegoen artean ere. 1836ra arte ez zen onartu Espainian ere esklabotza indargabetuko zuen Errege Agindua.

**p.138: Sitapha Alfred Savané,** Senegalgo eta Espainiako saskibaloijokalaria ohia. 2018ko maiatzean erretiratu zen, ACB Ligako Movistar Estudiantes taldean, Espainian 18 urtez profesional izan eta horietatik 15 ACBn eman ondoren. Gaur egun, ACB Ligako komentaria da Movistar+-en.

**Iñaki Williams Arthuer,** Espainiako Ligako Athletic Cluben jokatzen duen futbolaria espainiarra. **Nicholas Williams Arthuer,** Nico Williams edo Williams Jr. deitua, besterik gabe. Espainiako Ligako Athletic Clubeko aurrelari gisa jokatzen du Espainiako Lehen Mailako Athletic Cluben.



## Kontzeptuak hurbiltzen

- 1. Kolonizazioa:** beste herrialde edo lurralde bat menderatzea da. Zabalakunde politiko, ekonomiko eta soziokulturaleko europar prozesuak kasta kolonialen sistema ezarri zuen eta arrazakeria garatzen lagundu zuen.
- 2. Adierazgarritasun soziala:** hitz honek talde sozial batek hainbat esparrutan, arlo profesionalean, akademikoan, kulturean, politikoan, ekonomikoan, eta abarretan duen parte-hartzea, ikusgarritasuna eta boterea adierazten ditu. Alde horretatik, talde sozial batzuek beste batzuek baino adierazgarritasun handiagoa izan dezakete.
- 3. Identitatea:** identitate pertsonala pertsona bati bere burua ezagutzeko aukera ematen dioten ezaugarrien multzoak osatzen du. Pertsona bakoitzak bere buruaz duen kontzeptuari ere badagokio identitatea, eta pertsona bakoitzak hautematen duenaren, dakienaren eta bere kontzientziaren arabera eraikitzen da.
- 4. Pertsona afro-ondorengoak:** Afrikatik kanpo jaiotako pertsonak, Afrikatik etorritako arbasoak dituztenak.
- 5. Pertsona afro-euskal herritarrak:** afrikar jatorriko pertsona euskal herritarrak.

## Oroitu beharrekoak

*Oso garrantzitsua da ezagutzen ez ditugun kulturak errespetatzea, nahiz eta gurekin alderatuta guztiz bestelakoak izan, ohiturak ez auzitan jartzea eta ez epaitzea gure mendebaldeko ikuspegitik, eta, batez ere, kultura guztiei lekua eta aukera ematea, guztien eskubideak errespetatuko dituen bizikidetza askotariko eta pluralaren alde.*

Euskal iruditeria kolektiboan oraindik ez da onartzen Euskadin jaioak diren edo bizitza osoa Euskadin eman duten eta, horrenbestez, beste edozein pertsonaren bizi-ibilbide berberetan parte hartu duten pertsona beltzak daudela.

Euskal herritarrek rol nabarmena jokatu zuten diktadura frankistaren garaian Ekuatore Gineako kolonizazio espainiarrean. Han, batez ere, kolonizatzaile gisa jardun zuten, eta produktu berriak, hala nola kakaoa, kafea eta zura, nekazaritzarako ustiatzeaz arduratu ziren.

**Zer gogoratu nahi duzu zuk?**



## Bibliografía eta irudien zerrenda

Javier Ortiz Arza (2019). Tesis doctoral “*La comunidad vasca de Sevilla y la trata de esclavos (s. XVI)*”. Universidad del País Vasco.

Miller, Joseph C. Miller (2001). *La Abolición de la trata de esclavos y de la esclavitud: fundamentos históricos*. Ediciones Unesco

Informe del Grupo de Trabajo de Expertos sobre los Afrodescendientes acerca de su misión a España. Asamblea de Naciones Unidas, 14 de agosto de 2018

Observatorio Vasco de Inmigración 2020. <https://www.ikuspegi.eus/es/>

“*Estudio para el conocimiento y caracterización de la comunidad africana y afrodescendiente*” (2019). Observatorio español del racismo y la xenofobia (OBERAXE)

M<sup>a</sup> Ángeles Cea d’Ancona, Miguel S. Valles Martínez (2021) “*Aproximación a la población africana y afrodescendiente en España: Identidad y acceso a de derechos*”. Ministerio de Igualdad

Bilbao, S. y Fouassier, M. (2017). *Las vascas de ascendencia africana: presente y futuro (16-25 años)*. En J. A. Oleaga. (Ed.), *La diversidad infantil y juvenil en la CAE. Las (mal llamadas) segundas generaciones* (pp. 683- 732). Bilbao, España: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco.

Gorka Moreno Márquez (ed.) *INMIGRACIÓN E IMPACTO DE LA CRISIS* Anuario de la Inmigración en el País Vasco 2013

Maíra Días Pereira (2020). *Koop SF34: Análisis de una asociación de personas migrantes, en Bilbao, a partir del enfoque del desarrollo humano local*. Trabajo fin de Master. Instituto Hegoa Universidad del país Vasco.

- <https://edigol.com/es/mapa-mural-euskadi>
- [https://historiaybiografias.com/mapa\\_politico\\_africa/](https://historiaybiografias.com/mapa_politico_africa/)
- <https://rubengmateos.com/2018/06/29/begira-nueva-cancion-de-la-artista-afrika-bibang/>
- <https://www.instagram.com/p/CNahL-chMtb/>
- <https://www.netmaps.es/mapas/equatorial-guinea-political-map/>
- [https://www.nicepng.com/ourpic/u2e6e6o0u2e6a9y3\\_kakao-mazorca-de-cacao-dibujol/](https://www.nicepng.com/ourpic/u2e6e6o0u2e6a9y3_kakao-mazorca-de-cacao-dibujol/)
- <https://www.instagram.com/p/CVplkTZsVX2/>
- [https://as.com/futbol/2020/01/25/primera/1579979139\\_853333.html](https://as.com/futbol/2020/01/25/primera/1579979139_853333.html)
- [https://www.livefutbol.com/ficha\\_jugador/nico-williams/](https://www.livefutbol.com/ficha_jugador/nico-williams/)
- <https://www.solobasket.com/liga-endesa/sitapha-savane-perdemos-un-buen-jugador-ganamos-un-mejor-activista>
- <https://encuentratupoema.pe/poeta/victoria-santa-cruz/>



